

Gudari Eguna Hernanin

LA HAINE EUSKAL HERRIA :: 24/09/2022

Jarki Antolakunde iraultzaileak Gudari Eguna ospatu du.

Gaur, euri hotsek txalapartaren doinuari bide eman diote, JARKI antolakunde iraultzaileak Hernanin antolatutako Gudari Egunean. Horrela, eguraldiari aurre eginez, Hernaniko Gudarien Plazan bildutakoak, Siriako Alderdi Komunista Bateratuaren elkartasun mezua entzun dute, ahanztura hizpide izan duen bertsoaren ostean.

Ekialde Hurbileko eta Euskal Herriko errealitateei so eginez, borroka internazionalistaren garrantzia azpimarratu da elkartasun mezuan, eta Donbasseko herriarien borroka ere presente egon da. Agurraren eta lore eskaintzaren ostean, JARKI antolakunde iraultzaileak, bere hitzaldian, Gudari Eguna oroimenera mugatu beharrean, Euskal Herri Langilearen borroka eta aldarrikapenak plazaratzeko egun gisa markatu ditu. Era berean, Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapalkuntzari aurre egiteko forma bakarra antolakuntza dela nabarmendu du, gudariak aurrera eramandako borrokaren adibideari erreparatuta eta honi jarraiki. Horrela, JARKI antolakunde iraultzaileak Euskal Herrairen askapenaren alde eroritako gudariak ekarri ditu gogora, euren borrokaren izaera politikoa azpimarratuz eta honen gaurkotasunean berretsiz. Ekitaldiari amaiera emateko, Eusko Gudariak eta Internazionala abestu dira.

Jarraian Siriako Alderdi Komunista Bateratuak bidalitako elkartasun mezuaren testua eta, ondoren, JARKI antolakunde iraultzailearen irakurketa:

<https://www.jardunkoordinadora.org/siriar-alderdi-komunista-batuak-jarki-ri-2022ko-gudari-egunean-bidalitako-elkartasun-mezua/>

<https://www.jardunkoordinadora.org/jarki-ren-2022ko-gudari-egun-nazionaleko-hitzaldia/>

El estruendo de la lluvia ha dado paso a los acordes de la txalaparta en el Gudari Eguna organizado por la organización revolucionaria JARKI en la Plaza de los Gudarís de Hernani. Los congregados, haciendo frente a las inclemencias meteorológicas, han tenido la oportunidad de escuchar la carta de solidaridad enviada por el Partido Comunista Sirio Unificado, el cual ha sido sucedido por los bertsos centrados en el olvido interesado y promovido por los estados español y francés.

La organización revolucionaria JARKI, más allá de limitar el Gudari Eguna a la memoria, ha hecho hincapié en que es un día para reivindicar la lucha contra la opresión que sufre el Pueblo Trabajador Vasco y su afán firme para hacer frente a la misma, subrayando que la única forma de emprender dicha empresa es la organización, siguiendo el ejemplo de los que han dado su vida por la liberación de Euskal Herria. Además, se ha recalcado el carácter político y la actualidad de la lucha que éstos han desarrollado.

Al final del acto se han cantado el “Eusko Gudariak” y “La Internacional”.

<https://eh.lahaine.org/gudari-eguna>